

ZORTZIGARREN ORDENANTZA FISKALA

IBILGAILUAK IBILGETU, KROKATU ETA BIDE PUBLIKOTIK ERRETIRATZEKO ZERBITZUA ESKAINTZEARI DAGOKION TASA, HALA NOLA, HORIEK UDAL LOKALETAN EGOTEARI DAGOKIONA

I. ARRAZOIA ETA IZAERA

1. Artikulua.- Bizkaiko Lurralde Historikoko 5/89 Foru Arauak, Ekainaren 30ekoak, horrek arautzen baititu Toki Ogasunak, emandako ahalmenak erabiliz, Udal honek Bide Publikotik ibilgailuak erretiratu eta biltokietan gordetzeko zerbitzua eskaintzeagatik Tasa ezartzea erabaki du.

II. ZERGAPEKO EGITATEA

2. Artikulua.- Tasaren zergapeko egitate honako hau dela ulertuko da, hau da, udal zerbitzuak eskaintzeagatik beharrezko diren baliabide pertsonal eta materialak erabiltzea, ibilgailuak ibilgetu, kroatu eta bide publikotik erretiratzeagatik, hala nola erabakiko diren biltokietan gordetzearren sortutako lanei aurre egiteagatik, hori egingo da bestalde, zirkulazioko arauak hausten direlako edo ibilgailua abandonatu egin delako arrazoiz zirkulazio librea eragotzi, oztopatu edo horri traba egiten dionean.

III. SUBJEKTU PASIBOA

3. Artikulua.- Tasa hau ordaintzeko obligazioa izango dute solidarioki, ibilgailuen edozein titulu izanik horien jabe, erabiltzaile edo edukitzaile denak, baldin eta horrek udalaren partehartzea eragiten badu.

IV. ZERGAREN KUOTA

4. Artikulua.- Zergaren kuota, hurrengo tarifaren arabera izango da:

a) Bide publikotik erretiratzeagatik	96,00€
B) Ibilgailuak gordetzearren, eguneko	10,00€/eguna
C) Garabiaren zerbitzuagatik, hori gauzatzen ez denean, gidaria bertan egotearren	58,00€
D) Ibilgailua ibilgetzea	32,00€

5. Artikulua.- Tasa, zerbitzua eskaintzen hasten den momentutik, sortuko da.

VI. KUDEAKETAKO ARAUAK.

6. Artikulua.-

1.- Garabio bidez erretiratutako ibilgailua udal biltokian egongo da haren jabea hura erretiratzera etorri bitartean.

Hogeita lau ordu igaro ondoren ez badu oraindik jaso, ofizio bidez jakinaraziko zaio eta zergatik erretiratu zaion eta zein arauhauste egin duen adieraziko zaio, eta hamar eguneko epea emango zaio hura erretira dezan.

Hamar egun horiek igaro ondoren ibilgailua ez bada erretiratu izan, hor egongo den egun bakoitzeko, lehen egunetik hasita, 4. artikuluan adierazitako tarifa kargatuko zaio.

2.- Udalak auto-kitapeneko sistema bidez galdatuko du tasaren ordainketa. Ondorio horietarako, subjektu pasiboak dagokion autokitapena aurkeztu beharko du Udal Administrazioak emango dion ordainagiria beteaz, eta Udal Biltokitik ibilgailua erretiratu aurretik, Udaltzaingoaren Bulegoetan horri dagokion zenbatekoa ordaindu beharko du.

3.- Tasaren ordainarazpen kasuan ere Udalak tasa horren ordainketa autolikidazio sistema bidez galdatzen du, ibilgailua benetan erretiratu izan ez den kasuan, 4. artikuluan aurrikusitako c) tarifyan aurrikusita dagoenaren arabera. Ondorio horretarako subjektu pasiboak Udaltzaingoko Agenteak emango dion inprimakian egindako autolikidazioa aurkeztuko du eta dagokion zenbatekoa egintza berean ordainduko du, eta hori, zerbitzua eskaintzeko arrazoiak eman duen ibilgailua haren eskuetan jarri aurretik egin beharko da.

VII. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

7. Artikulua.- Ibilgailu lapurtuek ez dute tasarik ordaindu beharrik izango, baina inguruabar hori egiaztatu egin beharko da, hain zuzen ere, arrazoi horregatik jarritako salaketaren kopia aurkeztuz.

VIII. SARRERAK

8. Artikulua.- Tasa ordaindu arren, horrek ez du libre uzten bat, zirkulazioko arauak edo Hiriko Poliziaren arauak haustearren legezko zehapenetatik.

IX. HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

9. Artikulua.- Zergari buruzko arauhauste eta horien gaineko kalifikazioari dagokionez, hala nola horien gainean kasu bakoitzean jarri beharreko zehapenei buruz, Bizkaia Lurralde Historikoko Zergari buruzko Foru Arau Orokorreko 186. artikuluan eta ondorengoetan xedatua dagoena hartuko da kontutan.

AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau behin betiko onetsi da, eta egin zaizkion aldaketekin batera, 2008ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko da, eta indarrean egongo da, hori aldatu edo indargabetzea erabaki arte.